# Lurra, memoria eta etorkizuna

## Ingurumenaren aldeko emakume palestinarrak

Abeer M. Al Butmeh, ingurumen-ingeniaria eta PENGON-Foe Palestine-ko koordinatzailea, Palestinak ura, lurra eta baliabide naturalak izateko eskubidearen alde borrokan diharduen ekintzailea da. Lurralde okupatuetan ingurumenaren kontrako urraketak ikusarazteko eta energia- eta ingurumen-trantsizioan emakumeak ahalduntzeko intzidentzia-kanpainen buru da. Energia berriztagarrietan, uraren kudeaketan eta nekazaritza jasangarrian oinarritutako proiektuen bitartez, komunitate ahulen erresilientzia sendotzen du. Bere lanak erakusten du ingurumenaren aldeko defentsa, justizia sozialaren eta palestinarren giza eskubideen aldeko borroka ere badela.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Abeer M. Al Butmeh,** Palestinako ingurumen-ekintzailea |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko urriak 10**<br>Ostirala, 18:30-20:00 |
| **Tokia:** | Bilarreko El Jubilao tabernako etxabean, Bilar |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Aski Da Fest<br>Bitartean Jolasean Elkartea<br>UNRWA Euskadi |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Afrikaldia, 2025eko Afrikako zinemaren euskal jaialdia

## Price of love

Teddyk, Adís Abeba hiriko taxi-gidari gazteak, iragan kriminala du, baita prostituta izandako ama ere. Emakume baten aurkako abusuaren lekuko izan ostean, Teddy haren defentsan atera eta harekin maitemintzen da. Elkarrekin Etiopiako hiriburuan, Adís Abebako kaleetan, bizirauteko borrokatzen dute.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Anita Hichaicoto,** Afrikaldia |
| **Data eta ordua:** | **2025eko urriak 11**<br>Larunbata, 18:00etan |
| **Tokia:** | Kultur Etxeko Ekitaldi Aretoa, Bastida |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Bastidako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Tailerra: Oinarrizko brikolajea emakumeetzat

“Emakume trebeak” tailerrean parte hartzera gonbidatzen zaitugu, brikolajearen munduan hasteko eta genero-estereotipoak desafiatzeko aukera paregabea!

Tailer praktiko honetan brikolaje gaitasun oinarrizkoenak ikasiko duzu. Tresnak era seguruan erabiltzen, etxeko konponketak egiten eta etxea hobetzeko prozesuak era eraginkorrean egiten ikasiko duzu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Carmen Melchor,** iturgintzako, gaseko eta berokuntzako instalatzailea |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko urriak 18**<br>Larunbata, 9:30-14:00 |
| **Tokia:** | Lantziegoko Gizarte etxea |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Lantziegoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# “Con nombre(s) de mujer(es)”

Zenbat espazio publikok dute emakume izena gure herrian? Zer-nolako erabilera ematen diegu emakumeok espazio publikoei? Zein emakume dira ezagunak Lantziegon? Zein dira haien istorioak? Honako tailer-zikloak, Lantziegon bizi diren eta bizi izan diren atzoko, nahiz gaurko emakumeak, haien historiak eta ekarpenak ezagutzeko topalekua izan nahi du.

Informazio gehiago honako estekan: Con nombre(s) de mujer(es)

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Mentxu Ramilo Araujo,** profesional interdependientea, antropologo-arima duen politologoa |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko urriak 20 eta 27; azaroak 3 eta 17**<br>Astelehena, 17:00-19:30 |
| **Tokia:** | Lantziegoko udaletxeko erabilera anitzeko aretoa |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Lantziegoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Emakumeen topaketa Eltziegon

3 egunez, Ziekon bizi diren emakumeen oroitzapen batzuk ezagutuko ditugu. Batzuetan istorio partekatuak eta, besteetan, ezberdinak kontatzen dituzten une, pertsona eta leku anitzen inguruko memoria ariketa egingo dugu. Modu gidatuan eta argazkietan oinarritutako biografia nahiz bizi-zuhaitzak bezalako teknikak erabiliz guztion artean Eltziegoko Oroimen Biziaren basoa osatuko dugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzaileak:** | **Entretanto Entretente – Bitartean Jolasean,** genero-ikuspegidun kulturarteko prozesu komunitarioetan adituak |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko urriak 22 eta 29; azaroak 5 eta 26**<br>Asteazkena, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Zehazteke, Eltziego |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Eskuernagako Udala eta Eltziegoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | 945 60 90 24 (Eskuernagako Udala)<br>Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Feminarium: Zinema feminista eta kulturartekoa

## Papicha, sueños de libertad

Iaz, eta kuadrillako udalerrietako hainbat emakumek eskatuta, Zinema Feminista eta Kulturartekoaren Kluba sortu genuen. Horiek horrela, aurten, zinemaren bitartez, jatorri ezberdinetako pertsonen elkar onarpena eta ahalduntze pertsonala, zein kolektiboa areagotu nahi dugu!

Bai bi noranzkoko estereotipoak, bai aurreiritziak zalantzan jartzen eta feminismoaz, antirrazismoaz, gorroto diskurtsoen edo diskurtso xenofoboen aurka, kulturaz eta zaintzaz hitz egiten lagunduko digun eta gogoeta bultzatuko duen zinema izango da.

***Papicha, sueños de libertad*** lanak Nedjmaren borroka azaltzen du. Aljeriako neska gaztea da Nedjma, eta, gerra zibila bete-betean, diseinatzaile izatea du amets. Fundamentalismoen presioaren aurrean, erresistentzia gisa, moda desfilea antolatzea erabaki du. Filma, emakumeak isilarazten saiatzen ari diren testuinguruan, emakumeen askatasunari, gorputzari eta autonomiari egindako kantu feminista indartsua da.

**Dinamizatzailea:** **Wayra Emakumeen Elkartea**

**Data eta ordua:** **2025eko urriak 22**
Asteazkena, 18:30-20:00

**Tokia:** Antonio Mijangos Kultur aretoa, Guardia

**Norentzat:** Herritarrentzat

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** Guardiako Udala
Arabako Foru Aldundia

**Informazio + eta inskripzioak:** asociaciondemujereswayra@gmail.com
603706562 (Whatsapp)
Berdintasun Zerbitzuaren bidez
945 600 252 / 620 577 565
criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus
Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez

SAMANIEGO, IEKORA

# Autodefentsa feminista




Maitena Monroy ekintzailearen eskutik, autodefentsa feministan erreferente denaren eskutik, geldiarazten gaituenari aurrez aurre begiratzen eta gure indarra berreskuratzen ikasiko dugu. Aurtengo urrian, **Maitena Monroy** erreferenteak gidatutako bi topaketa nahitaezkoetara gonbidatzen zaitugu. Lehenengo, Samaniegon bere liburua, *Autodefensa feminista. Más allá de aprender a decir no*, aurkeztuko du; eta, hurrengo egunean, Iekoran, autodefentsa feministari buruzko bizipen-tailerra emango du.

**Liburu aurkezpena: 'Autodefensa feminista, más allá de aprender a decir NO'.**

**Maitena Monroy** lau hamarkadaz autodefentsa feministaren inguruko tailerrak ematen eta Europako nahiz Latinoamerikako hainbat herrialdetan trebatzaileak prestatzen egon ostean, honako liburuak, 3.000 tailer baino gehiagotan parte hartu duten emakumeek eskainitako aberastasuna eta jakinduria barnebilduz, esperientzia hori jaso nahi du. Emakume horiei guztiei esker eta patriarkatuaren aurrean nazioarteko ahizpatasun ariketa gisa, autodefentsa feministaren praktika eta teoria garatu ahal izan ditugu.

**Autodefentsa feministarako hastapen tailerra**

Honako tailerrean teoria feministan barna murgilduko gara, geure errealitatea ulertu eta horri so egin ahal izateko. Egunerokoan lekukotutako matxismoak identifikatzeko eta horiei nola aurre egiteko gakoak izatea da helburua, indarkeria ikusgarriak eta ikusezinak identifikatuz.

| | | |
|---|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Maitena Monroy,** indarkeria matxistan aditua eta autodefentsa feministaren irakaskuntzan aitzindaria (ADF) | |
| **Tokiak:** | El Ochavo Aretoa, Haizea gela, Samaniego | Trujal, Yecora |
| **Datak eta Orduak:** | **Liburuaren Aurkezpena** "Autodefensa feminista. Más allá de aprender a decir no" **2025eko urriak 24** Ostirala, 18:00 | **Autodefentsa feminista tailerra** **2025eko urriak 25** Larunbata, 9:30-14:30 |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat | |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania | |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Iekorako Udala<br>Samaniegoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia | |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez | |



# Kargu politikoentzako berdintasun-politikei buruzko formakuntza: Berdintasunarekiko konpromisoa

Prestakuntza-saio honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Bertan, modu praktikoan eta parte-hartzailean landuko ditugu berdintasun-politiken ibilbidea, udal-esparruan duten aplikazioa eta jarduera-eremu guztietan genero-zeharkakotasunak duen garrantzia.

Berdintasunarekiko konpromiso politikoa sendotzeko eta udalerri bidezkoagoa nahiz, parekideagoa lortzeko bidean aurrera egiteko, tresna erabilgarriak eskuratzeko aukera da honakoa. Zure zain gaude!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Nagore Pérez,** Suge aholkulari feminista |
| **Data eta Ordua:** | **2025eko urriak 27**<br>Astelehena, 17:00-20:00 |
| **Tokia:** | Kuadrillako eraikina, Guardia |
| **Norentzat:** | Arabako Errioxako politikarientzat eta herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Emakume ausartak nekazaritzako eta abeltzaintzako emakumeen indarraren eta lanaren alde topa egiten

## Pascual Larrieta Bodegara bisita

Rosa Gómez de Segura ezagutuko dugu, bera izango baita bere upategia erakutsiko diguna: tokian tokiko upeltegi bat bisitatuko dugu, eta, han, ardoa egiteko prozesua ezagutu ez ezik, lurra eta mahatsondoa bere bizimodu bihurtutako emakumearen ahalegina, grina eta ekimena ere ospatuko dugu. Bisitan zehar, upeltegia bisitatzeaz gain, bertako protagonistarekin, Rosarekin, hitz egingo dugu, eta hark tradizionalki maskulinizatutako sektorean izandako borrokaren, ametsen eta lorpenen berri emango digu. Honakoa aukera paregabea izango da emakumeek landa-eremuan duten zeregina ikusarazteko eta aurrean ditugun erronkei buruz elkarrekin hausnartzeko, baina, batik bat, lehen sektorean bizi diren emakumeen arteko laguntza-sarea ehuntzen jarraitzeko.

Guztiok sororitatearen, lurraren eta lanaren alde egingo dugu topa.

| | |
|---|---|
| **Data eta Ordua:** | **2025eko urriak 30**<br>Osteguna, 16:00-20:30 |
| **Tokia:** | Bus-irteera Lakuako karabanetako aparkalekutik Samaniegoko bodegara |
| **Norentzat:** | Emakume nekazarientzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Gure Soroa<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | 627540945<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Zineforuma: Beta maskulinitateak

## “Clonar a un hombre: los cuidados”

Pentsatu al duzu gizonezkoek zaintzan duten rolaren inguruan? Masculinidades Beta-ren “Clonar a un hombre: los cuidados” dokumentala elkarrekin ikustera eta iruzkintzera gonbidatzen zaitugu. Mugiarazten gaituen, pentsarazten digun eta harreman parekideagoak nahiz gizatiarragoak imajinatzera bultzatzen gaituen proposamena da. Etorri eta parte hartu! Anima zaitez etortzera eta elkarrizketaren parte izatera!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Oihan Martirena,** AISE kooperatiba |
| **Data eta Ordua:** | **2025eko azaroak 2**<br>Igandea, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Oion Zinema |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Oiongo Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

# Hitzaldia: Maitasun onak ez du minik ematen

## Indarkeriarik gabeko harremanetarako lotura osasuntsuak

Bai maitasunari buruz, bai lotura osasuntsuei buruz, baita errespetuan, ekitatean eta ongizate emozionalean oinarritutako harremanei buruz ere hitz egitera gonbidatzen zaitugu. Elkarrekin hausnartuko dugu harreman osasuntsuak identifikatzeko nahiz indarkeriarik gabeko tratuan oinarritutako kultura sustatzeko gakoei buruz. Gelditzeko, elkarri begiratzeko eta nola maitatu nahi dugun birpentsatzeko aukera izango da. Animatu parte hartzera!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Miriam Herbón,** soziologoa, sexologoa eta berdintasunaren arloan prestakuntza eta esperientzia handia duena |
| **Data eta Ordua:** | **2025eko azaroak 7**<br>Ostirala, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Nabaridas |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Nabaridasko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Antzerki tailerrak: Feminismoaren denbora-lerroa

murgildu nahi duten emakumeei zuzendutako honako espazioa luzatzen dugu. Belenek espazioari bere sormena, pasioa, umorea eta konpromisoa eskainiko dizkio.

Historian zehar feminismoan lagundu duten figura nagusien inguruan lan egingo da, antzerkia adierazpen eta inspirazio tresna gisa erabiliz. Eta amaiera biribila ematearren... Gure obra propioa estreinatuko dugu martxoaren 8an! (Presiorik gabe, parte-hartzea librea eta malgua baita!)

Ez da beharrezkoa aldez aurretiko esperientziarik izatea; bai, ordea, partekatzeko, sortzeko eta gozatzeko gogoak edukitzea! Gerturatu eta probatu. Plaza mugatuak dira!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Belen Nevado,** aktorea, eszena-zuzendaria, musika, pailazoa, hezitzailea... eta, batez ere, feminismoarekin eta emakumeak artearen bidez ahalduntzearekin konprometitutako artista |
| **Datak eta orduak:** | **2025eko azaroak 10 eta abenduak 1; 2026ko urtarrilak 12, otsailak 2 eta 23; martxoak 7** (larunbata)<br>Astelehena, 18:00etatik 20:00etara |
| **Tokia:** | Zehazteke |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Errioxako Berdintasun Foroa |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

**MOREDA ARABA**



# Hitzaldia: Bizitzaren amaieran elkarri laguntzen

Dolua espazio konplexua da, bai norberarena, bai maite ditugunena; areago, haiei laguntzea tokatzen zaigunean. Dolua heldu aurretik, hura ezagutzea, nola gertatzen den jakitea, aurrera egiten lagundu diezaguketen tresnak ezagutzea eta horri buruz hitz egiteari beldurra galtzea oso baliagarria da.

Beraz, hitzaldi honetara animatzen zaituztegu, non doluari buruz naturaltasunez eta zaintzaren ikuspegitik hitz egingo dugun, denok geure doluaren aurrean eta lagundu beharko diogunaren doluaren aurrean baliabide gehiago izan ditzagun.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Carmen Koetsenruijter,** Zentro Mayaren Zuzendaria |
| **Data eta Ordua:** | **2025eko azaroak 10**<br>Astelehena, 17:00-20:00 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Moreda Araba |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Bilarreko Udala<br>Animazio soziokulturaleko zerbitzua<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Hitzaldia: Emakumeak, zahartzaroak eta menopausia

Hemen, menopausiari eta zahartzeari buruzko hausnarketa-gunea aurkituko duzu, emakumeek garai horretan jasaten dituzten aldaketa fisiko, emozional eta sozialak jorratzeko. Hemen, tabuak apurtzeko eta ongizatearen, osasunaren eta zahartzaroko esperientzien aniztasunaren inguruko elkarrizketak bultzatzeko lan egingo da. Aro horretan baldin bazaude, zeure burua hobeto ulertu nahi baduzu edo, horrela ez bada, iristen denerako prestatuta egon eta bizi-ziklo honetaz gozatu nahi baduzu, hurbildu zaitez!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Maider García de Vicuña Quintana,** ikuspegi feminista duen sexologoa eta psikologoa (Emaize Elkartea) |
| **Data eta Ordua:** | **2025eko azaroak 11**<br>Asteartea, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Eskuernaga |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Eskuernagako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Hitzaldia: Pantailen erabilera

## Egungo erronkak emozioen eta hezkidetzaren ikuspegitik

Nola eragiten ote dute sareek, pornografiak eta gorroto diskurtsoek gure seme-alabengan? Ingurune digitalean bizi gara, eta hark, haurrek eta nerabeek beren identitatea eraikitzeko, harremanak izateko eta mundua ulertzeko modua moldatzen du. Gurasoei zuzendutako hitzaldi honek, "matxosferaren" eraginaren, diskurtso misoginoen, indarkeria digitalaren normalizazioaren eta pornografiaren kontsumoaren gaineko begirada kritikoa eskaintzen du.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Jone Zalduegi,** Kooperatiba Emoki Elkartea |
| **Data eta Ordua:** | **2025eko azaroak 12**<br>Asteazkena, 15:00-16:30 |
| **Tokia:** | Eltziegoko Ikastetxe publikoa |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Eltziegoko Udala<br>Eltziegoko Ikastetxe publikoko IGEa<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

Emoki
EMOZIOAK
TEKNOLOGIA
SEXUALITATEA



# Hitzaldia: “Maternidades y no maternidades”

Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoa, hau da, emakumeek haurdun geratzeko duten gaitasuna, izan da gizarte-antolaketa ororen abiapuntua. Zoritxarrez, ezberdintasun biologiko hori ulertzeko moduak, ezberdintasunak berak sortu ditu. Gauzak horrela, honako hitzaldian amaren figuran sakonduko dugu: nola irudikatzen den, zer eskatzen zaien amei, zer aurpegiratzen zaien ama ez direnei... Batik bat, emakumeen esperientzietan murgilduko gara, amaren kategoria gizatasunik gabea eta sinplifikatzailea izan ez dadin.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Nagore Pérez,** Suge Aholkulari feminista |
| **Ordua:** | **2025eko azaroak 14**<br>Ostirala, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Arabako Errioxako Kuadrillako Ekitaldi Aretoa, Guardia |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Hitzaldia: Nerabezaroa eta sare sozialak

Estereotipoak eta desberdintasunak indartzen dituzten ispilu bihurtu dira, bereziki, neska gazteen artean.

Hitzaldi honek, hizkuntzak eta sareetan azaltzeak norberaren identitatean, harremanetan eta pertzepzioan izan dezakeen eraginaren inguruan hausnartzera gonbidatzen ditu nerabeak. Honakoa, ingurune digitalari begi kritikoekin begiratzeko eta gizarte parekideago baterantz aurrera egiteko proposamena da, diskriminaziorik eta genero-presiorik gabea. Zure zain gaude!

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Humana Lab Elkartea** |
| **Data eta ordua:** | **2025eko azaroak 15**<br>Larunbata, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Iekora |
| **Norentzat:** | 12 urtetik gorako gazteentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Iekorako Udala |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Feminarium: Zinema feminista eta kulturartekoa

## Qué horas ela volta?

Iaz, eta kuadrillako udalerrietako hainbat emakumek eskatuta, Zinema Feminista eta Kulturartekoaren Kluba sortu genuen. Horiek horrela, aurten, zinemaren bitartez, jatorri ezberdinetako pertsonen elkar onarpena eta ahalduntze pertsonala, zein kolektiboa areagotu nahi dugu! Bai bi noranzkoko estereotipoak, bai aurreiritziak zalantzan jartzen eta feminismoaz, antirrazismoaz, gorrotozko diskurtsoen edo diskurtso xenofoboen aurka, kulturaz eta zaintzaz hitz egiten lagunduko digun eta gogoeta bultzatuko duen zinema izango da. *Qué horas ela volta?* lanak Valen istorioa azaltzen du, familia aberats baten semea berea izango balitz bezala hezi duen etxekoandrearena, alegia. Ordea, dena aldatzen da, Jessica, bere alaba, etxera bizitzera joaten denean, Jessicak nola bizi beharko luketen azaltzeko beste ideia batzuk baititu. Klase sozialak, afektuak eta zaintzaren mugak ezbaian jartzen dituen film hunkigarria da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Nerea Nanclares,** Wayra Emakumeen Elkartea |
| **Data eta ordua:** | **2025eko azaroak 19**<br>Asteazkena, 18:30-20:00 |
| **Tokia:** | Antonio Mijangos kultur aretoa, Guardia |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Guardiako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

ELTZIEGO




# Feminarium: Zinema feminista eta kulturartekoa

## Talentos ocultos

Iaz, eta kuadrillako udalerrietako hainbat emakumek eskatuta, Zinema Feminista eta Kulturartekoaren Kluba sortu genuen. Horiek horrela, aurten, zinemaren bitartez, jatorri ezberdinetako pertsonen elkar onarpena eta ahalduntze pertsonala, zein kolektiboa areagotu nahi dugu! Bai bi noranzkoko estereotipoak, bai aurreiritziak zalantzan jartzen eta feminismoaz, antirrazismoaz, gorrotozko diskurtsoen edo diskurtso xenofoboen aurka, kulturaz eta zaintzaz hitz egiten lagunduko digun eta gogoeta bultzatuko duen zinema izango da. *Talentos ocultos* Hiru emakume afroamerikarrei buruzko benetako istorio hunkigarria. Beren talentuari eta ahaleginari esker, NASA erakundearen eta munduaren historia aldatzea lortu zuten. Talentos Ocultos lanak, eskubide zibilen aldeko borroka bete-betean, berdintasunari, zientziari, arrazakeriari eta generoari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Wayra Emakumeen Elkartea** |
| **Data eta ordua:** | **2025eko azaroak 21**<br>Ostirala, 18:30–20:00 |
| **Tokia:** | Por determinar, Eltziego |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Eltziegoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |




# Antzerkia: A Ciegas

*A ciegas* antzerkia, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren prebentziorako antzerki murgiltzailea da. Esku-hartze artistiko ez-konbentzionala da, eta atmosfera eszeniko indartsua du.

| | |
|---|---|
| **Antzerki Konpainia:** | **Peloponeso Teatro** |
| **Data eta ordua:** | **2025eko azaroak 28**<br>Ostirala, 19:00-20:00 |
| **Tokia:** | Erabilera anitzeko gela, Nabaridas |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Nabaridasko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Hitzaldia- Maskulinitate berriei eta feminismoari buruzko tailerra nerabeentzat

Feminismoa gazteengana hurbildu nahi dugu, beren egunerokoan askeago eta arduratsuago senti daitezen, era berean, feminismoa, pentsatzeko aukera ematen duen mugimendu gisa ere aurkeztu nahi diegu. Konfiantza eta entzutea sustatzen duten bizipen- eta partaidetza-dinamiken bidez, nork bere burua zalantzan jartzeko eta bere errealitatearen inguruan hausnartzeko gonbita da; bakoitzak bere erantzun propioak aurki ditzan, eta, batik bat, bere buruari dagozkion galderak egin diezazkion.

| | |
|---|---|
| **Dinamizatzailea:** | **Ongiz – Ezberdin Elkartea** |
| **Datak eta orduak:** | Por determinar |
| **Tokia:** | Lapuebla de Labarca |
| **Norentzat:** | Assa Ikastolako ikasleentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Lapuebla de Labarcako Udala<br>Assa Ikastola<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + inskripzioak:** | Berdintasun Zerbitzuaren bidez<br>945 600 252 / 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |



# Berdintasunaren aldeko Arabar Errioxako elkarteen lana

| ENTITATEA ↓ | PROIEKTUA ↓ |
| --- | --- |
| **El Pilagar kultur elkartea**<br>GATZAGA BURADON · SALINILLAS DE BURADÓN<br>ASOCIACIÓN CULTURAL EL PILAGAR KULTUR ELKARTEA | Berdintasunerako eta gizonen aktibaziorako antzinako balioak berreskuratuz |
| **Samurrak aniztasun sustapen elkartea**<br>Samurrak Aniztasuna<br>Sexologia - Berdintasuna - Kulturartekotasuna | Sexu, genero eta kultura aniztasun tailerrak Arabako ikastetxe eta elkarteetan |
| **Lantziegoko Guraso Elkartea** | Hezkidetza eta Indarkeriarik Gabeko Komunikazioa Sustatuz |
| **La Giralda Guraso Elkartea** | Berdintasunean haziz: miatu eta errespetatu |
| **Eltziegoko eskola publikoko Guraso Elkartea** | Berdintasunean heztea III/ Educar en igualdad III |
| **El Fabulista Guraso Elkartea** | Berdintasunerako eta tratu onerako 2025eko programa |
| **ASSA ikastola-ko Guraso Elkartea** | Sexuen heziketa |

# Oharrak